

# Iker Pou

Eskalatzailea

## Sorginetxe blokea (8b+), Euskal Herriko gogorrena, kateatu berri duen aitzakian, eskaladari buruz, modu zabalean aritu gara solasean gasteiztarrarekin

Ramon Olasagasti

Nafarroara, Larraonako eskolara batez ere, etengabe joan-etorrian dabil Iker Pou. Elkarrizketa egin ondoren ere, Iruñera joatekoa zen, iaz Alemaniako Sibergier horman eginiko eskaladari buruz proiektzioa emateko.

• **Azken aldian erabat nafartu omen zara?** (Barreak) Bai, egia da. Orain, neguan, denbora gutxiago daukat eskalatzeke eta, ondorioz, astean bizpahiru aldiz hurbiltzen gara Larraonara boulder egitera.

• **Sorginduta zauzka, beraz, Larraonak?** Bai, sektore asko zabaldu ditugu, boulder berri asko, eta hor gabiltza beti. Leku ederra da. Gasteiztik koadrila handi samar bat mugitzen gara eta Larraonan bertan bizi diren Gorka eta Endika anaiak ere han ibiltzen dira egunero.

• **Orain dela hiru urteko elkarrizketa batean zenion Larraonak sekulako aukerak eskaintzen zituela. Atera diozue zuku guttia edo oraindik ez?**

Ez, ez, oraindik ere aukera asko eskaintzen ditu. Zabaltzeko bloke eta eremu mordo dago. Okerrena da, proiektu gogorrak direla eta kosta egiten dela gauzatzea. Aurten, gainera, nahiz eta eguraldi ona egin, hezetasun handia dago, hotz egiten du, blokeak busti egiten dira, eta astebetean ez dira lehortzen. Ondorioz, egitasmoak aurrera eramatea ez da erraza.

• **Eskaladaz gutxi ulertzen dutenei nola azalduko zenieke zer den blokeko 8b+ zailtasuneko bide bat?**

Ez da erraza. Boulderrean bi, hiru, lau mugimendutan zailtasun erabatekoa bilatzen duzu. Indar asko pilatzen duzu mu-

gimendu gutxitan. Sokarekin horrelako mugimenduak entseatzeko oso zaila da, lur jota buka dezakezu. Jo dezagun 8b zailtasuneko bloke mugimendu bat dagoela bide baten goiko partean; bada, bide hori gaintitzea izugarria litzateke. Boulderreko edo blokeko mugimenduak oso zailak dira, asko entseatu behar duzu gaintitzeko. Heldulekuak oso txikiak izan ohi dira, keinua bilatu behar da... Hasieran, ezinezko mugimenduak iruditzen zaizkizu, baina frogatzen hasten zara, barneratzen dituzu mugimenduak eta, azkenean, ateratzen duzu, baina ez da erraza. Eskalada bideekin alderatuz, boulderreko 8b bat, 8c+ zailtasunaren baliokide izan daiteke bide batean. Edo 6a zailtasuneko bide bati jarri bukaeran *Sorginetxe* blokea eta, gutxien-gutxienez, 8c+ aterako litzateke edo 9a.

• **Eskalada bideetan indarra bezain garrantzitsua da teknika. Boulderrean indarra inportanteagoa da?**

Bai, nik uste dut baietz. Teknika behar da, baina boulderrean indar handia behar duzu, bat-bateko indar hori. Bide bat eskalatzen ari zarela, pentsamendu asko pasatzen zaizkizu burutik; boulderran, aldiz, ez zara ezertaz konturatzen, ze lau mugimendu dira eta muga-mugan zoaz. Ahalegin gorena egiten duzu 10-15 segundutan.

• **Bi urte inguru behar izan dituzu Sorginetxe kateatzeko. Bloke batekin blokeatzen zarenean zer egiten duzu?**

Utzi egiten dut bolada baterako. Noiz-behinka frogatzen dut, baina ez naiz buru-belarri saiatzen. *Sorginetxe* zabaldu genuenean, lehenengo zatia, zati etzana, ia ezinezkoa iruditu zitzaigun: ertzak edo heldulekuak oso txikiak ziren. Ondorioz, erditik gora eskalatu genuen lehenbizi. Behekoa frogatzen nuen, eta buuff, ezinezkoa iruditzen zitzaidan. Hala ere, oso gustukoa nuen sabai hori eta frogatzearen poderioz, pauso bakar batera geratu nintzen iaz. Zortzi mugimendu ditu *Sorginetxe*-k eta bakar bat trabeskatzen zitzaidan. Aurten, lehenbiziko egunetik ondo egiten nituen mugimenduak; burugogortu nintzen eta, azkenik, lortu nuen.

• **Proiektu bat kaskezurrean sartzen zai-zunean, hura lortu arteko bakerik ez duzu izaten, ezta?**

Bai, bide honekin hala izan da. Blokea frogatzeko ez nuen denbora askorik eta

# «Sutsu nabil eskalatzen; denboraldi honetarako gogo handiarekin nago»



Iker Pou, iaz, Bulnesko Naranjo Haitzean, Josune Bereziarturekin Kantauriko Pilarea bidea era askean gaintitu zuenean. Irudian, hirugarren luzeko pasarte zailenean (8a+) ageri da Iker.